

Santo Tomas ospatzen

Ikaztegiatako
haurrekin
izan dira
herritarrak ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2005-12-24 ▶ III. urtea ▶ 771. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Tolosako Udalak omenaldia egin die urteko kirolariei

EKIMENA ▶ Kirol Asteari amaiera emateko egin zuten atzo udaletxean

PLAKA ▶ Armando Roca atletaren omenez jarriko dute Usabal kirolgunean ▶ 4



Aipamen berezia jaso zuten kirolariak, atzo, udaletxean. IMANOL GARCIA

ZIZURKIL ▶

Jakinarazi dituzte ipuin lehiaketako saridunak

Hernandorena sariak banatzeko ekitaldia egin zuten atzo ▶ 2

IBARRA ▶

Ekitaldi asko Gabonetan gaztetxo eta haurrentzat

Ikus-entzunezkoak, antzerkia... izango dira Kultur Etxean ▶ 6

INIGO TERRADILLOS



Saskibaloio jokalariei omenaldia egin diete Usabalen

TOLOSA ▶ Gipuzkoa eta Real Madrileko beterranoak, jokoa ▶ 5

BIHAR ETA ETZI HITZARIK EZ

Bihar, Gabon Egunean, ez da HITZARIK argitaratuko, prentsan ohi den moduan gaur jai hartuko dutelako langileek. Eta bihar igandea denez, asteartean izango da HITZA berriro zuen artean. Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.

Mahala
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Bridge **BRIDGE 2005, S.L**

To whom this interest, It is a great pleasure to inform you that on January 9th, 2006 I am opening a new Language School in Tolosa, Pablo Gorosabel, 2-1ªA.

My wide experience in this field and my personal relationship with my students have encouraged me to start this new project. Therefore, if you are interested, do not hesitate and contact me. I will be very pleased to talk with you. I wish you all Merry Christmas and a Happy New Year.

Ana • 680 22 25 26

LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa
Tel./Faxa: 943 67 01 14
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

TOLOSA ▶ UDALA



Irudi berria ezarri dute

Erredakzioa ▶ Tolosako Udaleko kale garbiketa eta zabor biltzeta zerbitzuak irudi berria estreinatu du bere ibilgailuetan *Tolosa txukun* lelopean. Atzo erakutsi ziztuzten udal arduradunek ibilgailu horiek Plaza Zaharrean egindako aurkezpenean. I. ETXEBESTE

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Donostiara eta Gabonak

Erredakzioa ▶ Gabonetako oporrak hartu aurretik, Jesusen Bihotza ikastolako LH 2-ko ikasleak Donostiako Akuariamera eta Ontzi Museora joan ziren —argazkian—. Gaur jaiotza biziduna egingo dute, 17:30ean, zentroa eta elizaren arteko plazan. HITZA

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Jaialdia oporren aurretik

Erredakzioa ▶ Fleming-ekoe jaialdia egin zuten atzo: jolasak, krosa, gaurko ekitaldiaren entsegua eta txistor jatea. Arroako ikasleak Gureara joan ziren Olentzerrori buruzko filma ikustera, eta ondoren txistorra jan zuten. Gaur 10:30ean bilduko dira abesteko. HITZA

ZIZURKIL ▶ LITERATURA

IMANOL GARCIA

Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketako sari banaketa egin zuen atzo Udalak Atxulondo kultur etxean. A mailan, lehenena Irantzu Urkola izan da (7 urte, Zizurkil) *Zenbaki iheslariak* lanarekin eta bigarrena Nadia Bujemaa (8 urte, Zizurkil) *Olaiaren kixkurrak* lanarekin. B mailan, lehenengo Leire Padilla (11 urte, Villabona) *Pailazo txikia* ipuinarengatik; bigarren Uxue Moreno (10 urte, Andoain) *Haizeen maitagarria*-rekin. C mailan, lehenengoa Gaizka Martinez (13 urte, Zizurkil) izan da *Etxe zaharra* ipuinarekin; bigarren Ander Docel (12 urte, Andoain) *Lanparatxo miresgarria* lanarekin.

D mailan, Aintzane Egües (15 urte, Andoain) *Askatasun bilakatu naiz* lanarekin; bigarren Eneritz Iraola (16 urte, Anoeta) izan da *Esperantzari irmo eutsiaz* lanarekin. E mailan Leire Zubeldiak (21 urte, Zizurkil) jaso du lehen saria *Zuria baino haratago*-rekin; bigarrena Ainitze Etxanizentzat (23 urte, Anoeta) *Gidoilaria*-gatiak. Ipuinok, ohi bezala, liburua argitaratuko du Zizurkilgo Udalak.

Hernandorena-ko sariak banatu dituzte

Maila bakoitzeko lehenengo biek jaso dituzte opariak



Ipuin lehiaketako saridunak —horietako bat falta zen—, Marian Lazkano alkatearekin batera. I. GARCIA

AIZTONDO ▶

Fraisoron Alkizako eta Adunako abeslariak

Alkizako eta Adunako abesbatzek kantaldia eskainiko dute etzi, 18:00etan, Fraisoron. Gabon kantak abestuko dizkiete hango adindunei.

ASTEASU ▶

Preso politikoaren eskubideen aldeko kalejira

Olentzerrerekin kalejira egingo dute gaur Asteasun, 19:00etan plazan hasita *Ez gaude denok, estatus politikoa orain, euskal presoak Euskal Herrira* lelopean.

ZIZURKIL ▶

Udaleku irekien hasiera eta Kukubiltxo, etzi

Gabonetan Jolasean udaleku irekien hasiera emango zaio etzi Pedro Mari Otañon. Kultur Etxean, 17:00etan, Kukubiltxoren *Dir-Dir* emanaldia.

hilberria ▶

Joxepa Eskisabel Barandiaran

(Iñaki Rezola gure lankidearen ama)

MAIZPIDE euskaltegikook bat egiten dugu familiarekin une latz hauetan.

Hileta gaur, hilak 24, larunbata, Ataun San Gregorioko parroki elizan egingo da, arratsaldeko 17:00etan.

LAZKAO, 2005eko abenduaren 24a

Maria Eleuteria Otaegi Otaegi

(Miguel Otaegiren alarguna)

—Golan bego—

Begi bat itxiz, lehen agurra irri bat ondorenean primerakoa zinen adarra jotzen hasten zinenean Beti eduki degu lagun bat amonaren paperean bultzada garai ederrenetan babesa denboralean

gorde guretzat leku txiki bat zeruetako atean txoko berezi batean aitoren babesean ate urdindun sukalde xar ta bero haren kolorean garai zaharrak gogoratzeko berri batzen garenean



Zure seme-alabak, bilobak eta birlobak

GOIATZ, 2005eko abenduaren 24a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guzfitan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

MUSIKA ▶

JOXEMI SAIZAR

Herri minaren fruitua

Eguberri eguneko mezetan ariko dira berriro Santa Maria parrokiako abesbatza eta orkestra, oso leku gutxitan gelditzen den musika altxorra

Eguberri egunean Santa Maria parrokiako musika kaperak beste emanaldi berezia izango du goizeko hamarretako meza nagusian, Eduardo Mokoroaren *Meza pastoral*a eskainiz. Tolosak altxor bezala mantentzen duen abesbatza eta orkestra Euskal Herriko bakarra da, eta estatuko bakarrenetakoa. Urtean zehar hainbat saio eskaintzen ditu Santa Maria parrokiako eta Izaskungo ermitako meza nagusietan.

Gaur egun musika kaperako zuzendaritzan Ander Letamendia ari da. Duela 42 urte hasi zen parrokiako musika taldean tiple —haurren ahotsa— gisa abesten eta gero urte askotan biolina jotzen aritu da zuzendaritza hartu arte. «Ormaiztegi-giko *Udabarro* baserrian ijito bati erositako biolinarekin hasi nintzen Arsuaga maisuarekin ikasten 9 urterekin Eskolapioetara ikastera etorri nintzenean Tolosara. Sanjoanetan oilasko pareta eta txanpaina ematen genion, eta berak barraketan gastatzen genuen paga ematen zigun», dio ormaiztegiarrik. Aurretik tiplea izana zen Ormaiztegin eta gregorianoa ikasi zuen abesten. «Perosiren mezak-eta abesten genituen. Gabiriako elizan ere kantatzen genuen», dio. Garai hartan igandeetan elizan omen ziren herriko ekitaldirik nagusienak: goizean meza nagusia eta arratsaldean bezperak. Eliz giroan bizi ziren garai hartan haur eta gaztetxoak. «Orain, berriz, futbola eta telebista.



Parrokiako abesbatza Sortzez Garbiaren Eguneko mezetan. J. SAIZAR

Bestirik ez dago», erantsi du.

Aitarengandik datorkio musikazaletasuna. Bere aita Serapio Alegiako organojolea izan zen. Musika kaperaz gain, 23 urte daramatza Ander Letamendiak Zarauzko Oleskariak abesbatza zuzentzen.

20 urte organoan

Parrokiako zereginean laguntzaile fina duen Pepe Arzelusen figura goraiatu nahi du zuzendariak. Txikitatik laguna zuen, animatu zuen organoa jotzera eta hogeitaz bete ditu horretan ezarren truke. Aurretik Donostiako Tenisean eta

Bolero orkestran jo zuen Arzelusek. Gaztelubide abesbatzarekin ere jotzen du. «Oso musikari ona da», dio Letamendiak.

Lehen aldean, emanaldi gutxi izaten ditu Santa Maria parrokiako abesbatzak eta orkestrak urtean zehar: Urte Berria, Errege Eguna, Korpus, Izaskunen maiatzean eta irailean, San Joan Eguna, Santa Zezilia, Sortzez Garbia Eguna eta Eguberriak. Duela gutxi eskaini duen Sortzen Garbia Eguneko meza da «taldearen ardatza», urteko ekitaldirik nagusiena eta ederrena. Hala ere, urte osoan aritzen dira entseatzeko. Lehen askoz ere egun gehiago-

tan aktuatzeko. Eta hileta berezietan —*primisim*ak— ere aritzen zen.

Herri minez mantentzen da eta herriko musikari handien —Felipe Gorriti, Eduardo Mokoroa, Ignacio Mokoroa...— lana ezagutzera ematea eta tradizio eta altxor hauek mantentzea ditu eginkizunik nagusienak. Lehendik abestu duen jende asko berriro hasi da abesten, errepertorioa ezagutzen dutelako. Herria maite duten abesbatza gongoratzen nahi ditu Letamendiak parrokiako abesbatza parte hartzera. Entzuleen erantzunarekin ere gustura agertzen dira: «Batzuetan meza ordua baino ordu laurden lehenago sartzen dira lekua hartzeko», dio.

Asmo berriak

Etorkizunera begira, estatutuak egin eta elkarte gisa osatu dira abesbatza eta orkestrak kideak. Udalaren laguntza jasotzea espero dute. Mokoroa eta Gorritiren obra batzuk berreskuratzea nahi dituzte, nahiz eta batzuk zailak izan. Adibidez, datorren urtean Felipe Gorritiren *Kirie* prestatu eta hirukontzertu egin nahi dituzte: *Uharte-Arakilen* —egilearen jaioterria—, Tafallan eta Tolosan. Bestalde, laster musika



ANDER LETAMENDIA
ZUZENDARIA

«Parrokietan ez da horrelako musika talderik gelditzen; katedralen batean bai: Iruñean, Sevillan...»

kaperaren historia jasoko duen liburua ere argitaratzekoan dira elkarteko kideak.

Herrian gelditzen den altxor hau bakarrenetakoa da. «Parrokietan ez da horrelako musika talderik gelditzen. Katedralen batean bai: Iruñean, Sevillan...», dio zuzendariak. Biharko meza nagusian entzuteko aukera dago. Eta Urte Berri eta Errege Egunean. Egun hauetan Eduardo Mokoroaren *Meza pastoral*a entzun ahal izango da. Horrekin batera Felipe Gorritiren *Eguberrietako Graduala*, *Cantate Domino* eta *Eguzki aldetik* Gabonetako zortzikoa ere abestu izan dute.

BENJAMIN GALICIA ▶ MUSIKARIA

«Zazpi urterekin hasi nintzen tiple gisa»

Parrokiako orkestrako musikari beterranoenak 79 urte ditu, Benjamin Galicia tolosarra da —Andoainen bizi da ezkondu zenetik— eta kontrabaxua jotzen du. Flautina ere jo izan du hainbat taldetan.

Nola hasi zinen musikan?

Aitak klarinetea jotzen zuen musika bandan eta bere anaia guztiak ere musikariak ziren. Enrique anaia biolina ikasi zuen. 7 urterekin tiple nintzen parrokiaren eta 10 urterekin hasi nintzen bandan —10 urte egin nituen—. Eduardo Mokoroarekin ikasi nuen kantatzen, aitarekin —Felix— eta Manuel Valmasedarekin flauta eta kontrabaxua neure kontura. Javier Bello Portuk posturak erakutsita.

Urte asko daramatzazu pa-

rrokiako orkestran. Zein izan da garairik onena?

Garai batean abesbatza eta orkestra handiak zeuden. Arsuagak lan handia egin zuen harizko musikariak sortzen eta Mokoroak abeslariak. Garai desberdinak ziren, orduan jendea herrian gelditzen zen, errazagoa zen, ez zegoen besterik eta jende asko joaten zen abestera eta entzuteran. Goi mailako hiletetan tipleok ere abesten genuen eta diru pixkabat jasotzen genuen. Bestetan bakarlariek bakarrik abesten zuten organoarekin batera. Gero tipleak kendu egin zituzten abesbatza eta emakumeak sartu.

Zein da urteko emanaldirik gustukoena?

Lehen gehiago izaten ziren. In-

makuladako meza ederra da. Eguberrietako Meza Pastoral 6-8n ere oso polita da. Gorritiren meza Do-n, Ignacio eta Eduardo Mokoroarenak...

Beste talde batzuetan ere aritu izan zara.

Abeslari gisa Felipe Gorriti Eskolanian. Aita zuzendariordea zen. Oso abesbatza ona zen. Jai Alai orkestran 7 lagun ginen: Isidro Larrañaga akordeoian, Antonio Zugasti baterian, Miguel Martinez tronpetan, Simon Martinez saxoan, Miguel Valmaseda saxoan eta klarinetean, Jose Luis Ancin saxoan eta klarinetean eta ni kontrabaxuan, flautan eta abesten. Dantzaldiak egiten genituen Euskal Herri osoan. Gero Ordiziako Bolero orkestran ere jo nuen. Donostiako



J. SAIZAR

Herederorkestratik ere deitu zidaten, baina lanagatik ezin nuen, udako gau askotan jotzen zutelako.

Herriko jaietan parte hartu izan al duzu?

Sanjoanetan urte asko egin nituen flauta jotzen eskopetariarekin, Roman Tolosak utzi ondoren: hogeitaz urte orduan bakarra zen udal konpainiarekin

eta beste bospasei urte Sukalde konpainiarekin. Jotzen ditudan instrumentuekin zaila da Inauterietako txarangetan jotzea, baina jai hauek sanjoan bakoari gehiago gustatzen zitzaizkigun gaztetan. Dirurik ez zegoen eta diktadurak ez zituen uzten. Udaberriko Festak deitzen zieten, nahiz eta elurra egin... ◀

II. KIROL ASTEA ▶

Armando Roca hautatu dute 2005. urteko kirolari onena

Atleta beterranoaren omenez brontzezko plaka jarriko dute Usabal kirolgunean; atzo burutu zuten ekitaldia udaletxean, II. Kirol Asteari amaiera emateko

N. LATABURU - I. GARCIA

Hamabi hilabetez gogor lan egin dutenei omenaldia egiteko sasoia izan ohi da beti abendua. Aurtengoa ez da salbuespena, eta Tolosako Udalak 2005. urteko eskualdeko kirolari onenei omenalditxo egin nahi izan die, egunotan ospatzen ari den II. Kirol Astearen egitarauaren barnean. Udaltzar aretoa jendez gainezka izan zen. Eskualdeko herri guztietan topa ditzakegu kirolari trebeak, baina aurtengoa batzuentzat izan da protagonismoa, eta, batez ere, Armando Rocarentzat. Bera hautatu dute kirol taldeek 2005eko kirolari onena. Rocari sari berezia emango diote, gainera: Usabal kirolgunean brontzezko plaka ezartzea. Hunkituta jaso zuen omenaldia, eta mikrofonoa eskuan, Tolosan jasotako berotasunagatik eskerrak eman ondoren. «parte hartuko dudan hurrengo txapelketetan Tolosari ez huts egitea espero dut», esan zuen.

Beteranoen munduko txapelketan hirugarren postua lortu du aurtin Armando Roca. Beste ondorengo hauek ere aipamen berezia jaso zuten, eta Udalak diploma eta poster bana eman zuten ondorengo omenduei —posterra bakoitzaren argazkiarekin egokituta—: Edurne Pasaban mendizalea, emakume bakarra



Armando Roca, eskerrak emanez omenaldian bildutakoei. IMANOL GARCIA

munduan 8 zortzimilako igo dituen; Xabi Alonso futbol jokalaria, Champions txapelduna; Kepa Caballero patinatzailea, Espainiako txapelduna; Carlos Peña igerilaria, Tolosan Guinness errekorra lortu zuena 24 ordu jarraian igeri eginez; Alvaro Felipe wu shu-ko Espainiako txapelduna eta Europako txapelketetako parte-hartzailea; Joseba Rojo iraupen eskiatzailea, Espainiako selekzioko partaidea eta munduko joko eskolarretan parte hartu due-

na; Nerea Otaegi gimnasta (erritmikako modalitatean), Espainian domina jasotakoa; Josu Trabazos puntista, Gipuzkoako txapelduna; Joseba Ormazabal mendiko eskiatzailea, mendiko eskian Euskal Herriko txapelduna bigarrenen jarraian, eta Mikel Belloso pilotaria, eskupilotan afizionatu mailan aipagarria eta «profesional letara pasatuko» dena.

Besteei ere, aitortza

Baina ez zen kirolari talde hau omenaldia jaso zuen bakarra. 2005ean aipagarriak izan diren hainbat kirolarientzat ere elkarerentzat ere banatu zituzten diplomak. Hauxek izan ziren horiek: eskian, Imanol Rojo, Erlantz Gonzalez eta Xabier Saizar; igeriketa arloan, berriz, Loreto Azurza, Eider Etxart, Ion Azpiazu eta Itziar Oteiza izan ziren sarituak. Maria Lopez, Javier Ayala eta Unai Arceluz judoek ere jaso zituzten euren diplomak. Xabier Artola pistako txirindularitzaren

OMENDUAK ▶

Bi taldetan banatu dituzte saridunak udal arduradunek. Batetik, diploma eta posterra jaso zutenak; eta, bestetik, diplomak jasotakoak:

DIPLOMAK ETA POSTERRAK

Atletismoa. Armando Roca.
Mendizaletasuna. Edurne Pasaban.
Futbola. Xabi Alonso.
Patinaia. Kepa Caballero.
Igeriketa. Carlos Peña.
Wu shu. Alvaro Felipe.
Eskia. Joseba Rojo eta Joseba Ormazabal.
Gimnastika. Nerea Otaegi.
Zesta-punta. Josu Trabazos.
Pilota. Mikel Belloso.

DIPLOMAK

Eskia. Imanol Rojo, Erlantz Gonzalez eta Xabier Saizar.
Igeriketa. Loreto Azurza, Eider Etxart eta Ion Azpiazu.
Judo. Maria Lopez, Javier Ayala eta Unai Arceluz.
Txirindularitza. Xabier Artola, Ainhoa Pagola eta Jon del Rio.
Elkarteak. Oriako jubenil eta kadeteen taldeak eta Tolosa CF futbol taldea.

ordezkari izan zen, eta Ainhoa Pagola eta Jon del Rio txirindularientzat ere izan zen saririk. Elkartei dagokienez, Oriako jubenil eta kadete taldeak, erlojupekoaren kontra eginiko lana dela-eta eta Tolosa CF, Hirugarren Mailara igoera lortu zuelako.

Sari banaketa horrekin eman dio amaiera Udalak II. Kirol Asteari. Hala eta guztiz ere, ez da azken egunotako ekimen bakarra izan. Herenegun, Gipuzkoako saskibaloi jokalariek osaturiko taldea Real Madrileko beterranoen aurka aritu zen Usabalen. Ehunka lagunek bete zituzten kirolgune berriko harmailak ikuskizunaz gozatzeko.

GIZARTEA ▶

Caritasek esker onak eman dizkio laguntzaile orori

Urtearen amaieran gauden honetan, Tolosako Caritasek bere eskerrak beroenak luza-tu nahi izan dizkie urte guztian zehar haien laguntza eman duten guztiei. Beraiei esker herriko behartsuenek «arnas berria» jasotzen dutela adierazi dute Caritasetik, eta, bide batez, Gabonak zoriontzeko aprobetxatu nahi izan dute deialdia.

GIZARTEA ▶

Igarondo elkarteko txeeen irabazleak

Igarondo merkatarien elkarteak dendariak duela hilabete batzuk abian jarritako txeeen kanpainaren irabazleak jakitera eman ditu. 600 eta 300 euroko balioa duten erosketa-txeeen zozketa herenegun egin zuten: 600 eurokoa Tolosako Izaskun Alberdik irabazi du (Super Ekon bete zuen zozketa txartela) eta 300 eurokoa, berriz, Andoaingo Maria Luisa Etxeberriarentzat izan da (Aralar Kirolak dendan eginiko erosketari esker). Bi irabazleek, bada, saritutako txee horiek Igarondo merkatarien elkartearen barnean dauden dendak guztietan erabili ahal izango dituzte.

GARRAIOAK ▶

Azken hiribusa 20:30ean izango da gaurkoan

Garraio zerbitzuak jakitera eman duenaren arabera, Eguberrietako jaiegunetan ordutegiak murriztu egingo ditu herria zeharkatzen duen autobusak. Horrela, gaur, Gabon Gaua dela eta, azken autobus urbanoak 20:30ean izango du irteera, urteko gairontzeko egunetan baino lehenago, hain zuzen ere. Gaur bezalaxe, hilaren 31n ere, datorren larunbata, ordutegia murriztuko dute eta azken autobus zerbitzua 20:30ean eskainiko dute.

CAJA LABORAL EUSKAL ADIRU KUTXA

Aurreikuspen plana Pentsioak

Bide-erakuslea aurkitu dut nire etorkizunerako

JUANITO OIARZABAL ALPINISTA

URTE BERRIA, BIDE BERRIAK

www.aralar.net • tolosaldea@aralar.net



SASKIBALOIA ▶

IÑIGO TERRADILLOS

Omenaldiak eta sentsibilizazioak bat egin zuten herenegun Tolosako Kirol Astearen baitan Usabal kirol eta aisialdi gunean Sport Mundik, Gipuzkoa Basketek, Gipuzkoako Saskibalo Federazioak eta Tolosako Adiskideok kirol elkarteak hainbat erakunderen laguntzarekin antolatutako ekitaldi berezian.

Izan ere, Gipuzkoako saskibaloia, eta zehazki, 1966-67 denboraldian Lehen Mailara igoera lortu zuten Atletico SS Fagor taldeko Carlos Cuezva, Manu Moreno, Jose Miguel Martinez, Juan Mari Garcia, Monsalve, Segun Aspiazua, Enrique Laborde, Ascensio Guruceta, Santiago Zabaleta, Ion Basurco eta Procopio Gimeno jokalariek omendu zituzten, eta, ondoren, ikuskizun paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren 900 lagun inguruk. Batetik, ezinduen arteko saskibalo partida jokatu zuten, hainbatek gurpildun aukian jokatzearen sentsazioaz jabetzeko saiakera egin zutelarik, eta bestetik, Gipuzkoako jokalariek osatutako taldeak, Josean Aldalurren eta Lolo Encinasen gidaritzapean, Real Madrileko beteranoen aurka jokatu zuten. Oso paretsu ibili ziren bi taldeak, eta, azkenean, puntu bateko aldearekin nagusitu zen Gipuzkoakoa.

Bestalde, Tolosan saskibaloia sustatzeaz gain, dirua jasotzea ere izan zuen helburu herenegun egindako ekimenak, bertan bildutako dirua Tolosaldea Sahararekin elkartek aurrera eramaten dituen proiektuak laguntzeko bideratuko baitute.

Antolatzaileak gustura azaldu dira ekitaldiak izan duen harrerarekin; «ahaztuak genituen kirolariei omenaldia egitea zen gure asmoa horiek gogorarazteko, eta bestetik, sentsibilizazio kanpaina ere bultzatu nahi genuen Tolosaldea Sahararekin elkarteari laguntzeko, eta biak ere ederki bete dira», adierazi dute. Hala ere, laguntzaileei, babesleei zein herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete ekimena posible egiteko eman duten laguntzategatik.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza bifamiliar berria saltzen da Altzon: 200 m²-ko etxebizitza eta 160 m²-ko jardina. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 652 777 959.

Txapeldunak gogoan

Gipuzkoako saskibaloari omenaldia egin zioten herenegun Usabal kirolgunean



Gipuzkoak, Real Madrilekoak eta ezinduak, omendutakoekin batera. I. TERRADILLOS



1966-67 urteko Atletico SS Fagor taldeko jokalariek. I.T.

IGARONDO
Tolosako Merkatarien Elkartea
Asociación de Comerciantes de Tolosa

MIREN HARATEGIA
KAFETXEA EGIA
PESCADERIA ARTOLA
CARNICERIA ALTUNA
CARNICERIA SUKIA
PESCADERIA AMAYA
PESCADERIA SAN MIGUEL
JULEN JANARIDENDA
AUTOSERVICIO UGARI
ESPECIALIDADES MARIAJE
PIRULOS GOZOKIAK
FRUTAS BERMUDEZ
CARNICAS ALEJANDRO GOYA
PASTELERIA ECEIZA
PASTELERIA GOZONA
SUPER EKO

CALZADOS LIZARRIBAR
OSKI
POTTOKO
ARRI OINETAKOAK
CHARANGA
TASIA
PASABAN REGALOS
MILAGROS RONCAL
CALZADOS ARANA
FACTORY
MALUMBRES CONFECCION
PEAGE
SAIOA BOUTIQUE
LA VASCONIA
CONFECCIONES ARANGUREN
LENCERIA AMAYA
LENCERIA TOLOSA
LENCERIA NEREA
BOUTIQUE M.G.
BEREZI, TALLAS ESPECIALES
MAUKA
TEJIDOS EDER
UBEL
TEJIDOS APARICIO
GARICANO 1895
ZAPATERIA DESGASTE
REGALOS ALTUNA
ONDOLAIN
TAPICERIA ARKUPE
POXPOLIN ENMARCACIÓN
CRISTALERIA ALDATZ
EZENARRO LEIHOAK
IN-COORDINACIÓN DE GREMIOS
ARTEKA
DIONISIO ORMAZABAL
ELECTRO HOGAR
MUEBLES IRUIN
ZUMETA ELECTRICIDAD
COLCHONERIA TOLOSA
ELECTRICIDAD SANTA M°
MUEBLES ELOLA
SANEAMIENTOS ELOSEGUI
GARAÍKO INPRIMATEGIA
KOPY-BAT
COPY-TEC

TEJIDOS EL KILO
LENCERIA ROSS
POXPOLIN NIÑOS
COLORS
CONFECCIONES ANTXONI
CONFECCIONES LARDIES
BOLSOS JAIME
MERCERIA MAALAKO
MERCERIA ARRETXE
KIMU
MUGAR
KARMELE
STYLO
ERRATZ
ARKUPE
BAZAR AMIANO
ARALAR KIROLAK
ELITE KIROLAK
SHANTI KIROLAK
CAZA Y PESCA ARANDIA
BITXILORE
K.A. INTERNACIONAL
JOYERIA HNOS. CID
JOYERIA JUAN LUIS
JOYERIA IMEN
LA ESMERALDA
JOYERIA UGARTE
RELOJERIA IRATZAR
KIARA
RICHARD ARGAZKILARIAK
FOTO ARGI
SONAR
FOTO FERNANDO
OPTICA HAROTZ
OPTICA ARGITZI
PELUQUERIA JOSUNE
PERFUMERIA MAITE
DROGUERIA ELENA ORUS
DROGUERIA M° BELEN
MIKEL IZAGUIRRE PELUQUEROS
TOLOSA BIT INFORMÁTICA
FLORISTERIA KAIZ
TINTORERIA VENTABERRI
TINTORERIA KAIZ
ESTANCO JASHIN

ZORIONAK ETA URTE BERRI
igaron do

Question Komestoiak

ESTUDIO GRAFICO CRISTAL

IBARRA ▶ GABONAK

Haur eta gaztetxoei zuzendutako egitarau oparoa Eguberrietan

Kultur Etxean izango dira ikusgai ikus-entzunezkoak; antzerkia eta pailazoak hilaren 26tik 30era, 11:30ean

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udaleko Kultura eta Gazteria Batzordeak haurrei eta gaztetxoei zuzendutako programazio berezia antolatu du Eguberrietarako. Hala, hilaren 26tik 30era bitartean ikus-entzunezkoak, pailazoan emaldiak edo antzerkiak ikusteko aukera izango dute.

Asteleheneko bideo emanaldiarekin hasiko da egitaraua. Hurrengo egunean, asteartean, Elvi sabel hitzunaren ikuskizuna ikusteko aukera izango da. Asteazkenean, berriz, *Iñaxitoren ametsak* bertso antzerkia eskainiko du Trikuharri taldeak; 6-12 urte bitarteko haurrek bertsolaritza gertutik sentitzeko eta gozatzeko aukera paregabea da. Inaxito izango da protagonista. Hurrengo eguneko geografiako azterketarako ikasten ari dela loak hartzen du eta ametsetan hasten. Mundu osoan barrena bidaiatuko du bere ametsen eta igela izango du bere bidaiari lagun. Haurrei hemendik kanpora beste bizimodu eta kulturarik badela erakutsi nahi zaie bertsoa tresnatzat hartuta. Umeak ordubetez bederen aho zabalik egoteko bidaia polita da amets egitea.

Ostegunean, 4 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzenduriko *Antonino Apreta* ipuin-kontaketa izango da ikusgai Kutxa Kultur Ekintzaren babesarekin eta Gorringo Taldearen eskutik; Antonino, zapatari aparta, primeran bizi zen bere herrian... hari eta Bonbolino erraldoia agertu zen arte. Bon-



Antonino Apreta ipuin kontaketa eskainiko du Gorringo taldeak. I. T.

EGITARAUA ▶

Astelehena (hilak 26). Bideo emanaldia.

Asteartea (hilak 27). Elvi sabel hitzunaren ikuskizuna.

Asteazkena (hilak 28). Trikuharri taldearen *Iñaxitoren ametsak* bertso antzerkia.

Osteguna (hilak 29). Gorringo taldearen Antonino Apreta ipuin kontaketa.

Ostirala (hilak 30). Oihulari Klown-en *Alfonbra magikoa*.

bolinok eskari bitxia egin zion, beretzako zapata pare erraldoia eskatu baitzion. Nondik atera, ordea, halako zapata handiak egiteko larrua? Ez zegoen beste aukerarik: elefante baten larrua beharko zuen... Baina elefanteak urrun samar zeuden... Afrikan, hain zuzen.

Azken saioa ostiralean izango da, Oihulari Klown taldearen *Alfonbra magikoa* eman-

dia, hain zuzen; saio horrek irakurzaletasuna bultzatzea izango du helburu; Pu eta Kilikor liburutegi batera iristen dira eginkizun misterioitsu batek bultzatuta: Asper-poto monstroa harrapatzeko lagungarri izango zaien liburua aurkitzea. Bertan dauden haurrek eta Trugulu aziak lagunduta, liburu guztiak bereziak izan daitezkeela eta euren istorioa kontatzen duten liburuak ere badirela jakingo du bikoteak. Liburu bat zabaldu! Hori bai jolasa, hori bai bidaia fantastikoa, hori bai gauza ederra... Lehendabizi telebista eta bideojokoak parodiatuko dira emanaldi honekin, ondoren, irakurketa aisialdi alternatibo gisa eskaintzeko.

Ekitaldi guztiak doan izango dira, 11:30ean, Kultur Etxean. Kultura eta Gazteria Batzordeak haur, gaztetxo, guraso zein aiton-amonei bertaratzeko gonbita luzatu nahi die.

GIZARTEA ▶

Udaltalde 21en barruan daude beste lau herri

Gaztelu, Leaburu, Lizartza eta Orexa dira Uli Udaltalde 21 proiektuaren baitan daudenak

ERREDAKZIOA

Gipuzkoan azken Udaltalde 21ak sortzeko hitzarmena onartu dute. Beizama, Errezil, Gaztelu, Leaburu, Lizartza eta Orexa garatuko dira ekimen horiek. Garapen Iraunkorrerako Departamentuak plan bat prestatu zuen, «Gipuzkoako udal guztiak, Udaltalde 21 izeneko multzoetan bildurik, 2006rako Tokiko Agenda 21 programetan sartuak egon daitezkeen», hau da, ingurumen azterketak eta ekintza planak prestatzen, edota plana bera burutzen eta jarraitzen.

«Udaltalde 21 izeneko elkarteak lan taldeak dira, eskualde bereko zenbait udal osatzen dutenak, Tokiko Agenda 21 ezartzeko helburuz». Helburua betetzeko lantza eremuko udalerririk falta ziren. Hala, Garapen Iraunko-

rrerako Departamentuak Landa Inguruneko Udaltalde 21 proiektuaren garapenari Albitzurren, Alkizan, Bidegoian eta Larraulen ekin zion urtarrilean. Horretarako hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurilaritzako Lurralde Antolaketa sailak, Iñobek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolomendik, Mendikoi elkarteak eta Udalak.

Diputatuen Kontseiluak onartu zuen atzo Gipuzkoako Foru Aldundiak, IHOBE SA Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak eta Beizama, Errezil, Gaztelu, Leaburu, Lizartza eta Orexako udalen artean, Uli Udaltalde 21 proiektuaren barne, udal horietan Tokiko Agenda 21 ezartzea. Era berean, Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapenerako elkarteari 32.500 euroko diru laguntza ematea onartu zuen.

AISIALDIA ▶

Gabonetako ludotekak antolatu dituzte

Belauntzan, Gaztelun, Leaburu-Txaraman eta Orexa izango dira, urtarrilaren 5a arte

ERREDAKZIOA

Belauntzako, Gazteluko, Leaburu-Txaramako eta Orexako Udalek Gabonetako ludotekak antolatu dituzte urtero bezala, hilaren 26tik urtarrilaren 5era. «Adin ezberdinetako haurrek elkarrekin jolasteko eta ondo pasatzeko aukera izango dute, joko eta eskulan

ezberdinak eginez», diote antolatzaileek.

Hilaren 28an *Hitzak patriketan* antzezlan ikusteko aukera izango dute Leaburuko Gazte gelan. Bi irteera egingo dituzte: hilaren 30ean Donostiako Gabonetako Haur Parke-ara eta urtarrilaren 4an Txiki Park-era. Izen-ematea aipaturiko udaletan egin behar da.

hitza

lagunen txokoa

... Aio, Leitze! Leitzako Euskararen Hiztegia

▶ HITZA harpidedunen arteko zozketaren irabazleak:

- ANE GOÑI ONDARRETXE (Areso)
- ARANTXA OLAETXEA IRIARTE (Leitza)
- ITZIAR SAGASTIBELTZA SAGASTIBELTZA (Leitza)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ABALTZISKETA ▶ GAIA

Santo Tomas jaian, azoka bera eta haurrak protagonista

Herriko plazan elkartu dira bertako haurrak Ikaztegietakoeekin batera



Bi haur, txerrixoei begira eta txistorra ogi artean jaten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Santo Tomas azoka antolatuta zuten atzokoan Abaltzisketako eskolako irakasleek, gurasoekin batera. Hantxe elkartu ziren denak. Baina gonbite berezia ere zabaldu zuten; izan ere, Ikaztegietakoko eskolako haurrak ere bertaratu ziren azoka

txikiak gozatzeko. Plazan ziren guztiak poxpolinaz edo baserriarrez jantzita zeuden, egunak hala eskatuta.

Kartel koloretsu eta alai bat egin zuten eskolan, 'Santo Tomas' zioena. Horrez gain, zazpi postuetan ikusgai nahiz erosi —zenbait kasutan— zeuden produktuen izenak ere ko-

loretzatu egin zituzten. Paper txo apainduak barazkiek dutes berezko bizitasunarekin; postuek atentzioa ematen zuten.

Postuetan ikusi ahal izan zirenak ezberdinak bezain bereziak ziren hainbat kasutan: gero eta gutxiago erabiltzen diren nekazarien tresneriak alde batetik, betiko neguko barazkiak, taloak jateko txistorraz eta gaztaz lagunduta, txerrixoak, untziak, pastelak, troxak eta mantilak eta nekazal turismoa egiten dituzten xaboi eta marmeladak ere bai.

Musika ere jarri zuten plaza hotza dantzaz eta mugimenduen bidez uxatzeko. Haurrek hotzari korrika eginez eta parkean eguzki izpi lotsatien beretz egin zituen aurre. Bi urteko umeetatik hasi eta 12 urte bitarteko arte egon ziren bertan. Egia esan, janaren inguruan zebiltzan, gehienbat. Haur batek esan zuenez, «azokako onena, txistorra ogiarekin» izan zen. Eskerrak ondoko haur parkeari, eguzkitan egoteko txoko bakarrenetakoa baitzen.

13:00ak arte zuten plazan eta azokaren inguruan egoteko asmoa. Ondoren, Abaltzisketako eskolako haurrek, gurasoekin eta irakasleekin batera bazkalduta zuten herriko elkartean, bero goxoan. Zalantzarik gabe, haurrek ahaztuko ez duten eguna igaro zuten atzokoan.

VILLABONA ▶

Sahararrei laguntzeko bilketa

Tolosaldean Sahararekin elkarrekin Sahara lurralde-ira joango den euskal karabanarako bilketa burutuko du heldu diren Eguberrietan: kasu honetan, azukrea, konpresak eta hegalez eskatzen dituzte lurralde hartara bidaltzeko. Aurtengo bilketa udaletxean egingo dute, Gizarte Zerbitzuak han duen bulegoan, goizean goizetik hasita: 08:00etatik, 14:00etara, asteleheneetik ostiralera. Asteleheneetik 2006ko urtarrilaren 5era bitarte, hain zuzen ere. Inork ezer eraman nahi izanez gero, hara eramatea besterik ez du.

IKAZTEGIETA ▶

Olentzeroren etorrera, preso politikoen alde

Euskal Herriko hainbat herri-antolatuen euskal preso politikoen alde antolatuta diren ekimenak anitzak dira. Besteen artean, Ikaztegieta Olentzeroren etorrera izango da gaur, egunean zehar, 09:00etatik aurrera. Besteen artean, prentsaurrekoak, mus txapelketak, manifestazioak, kontzentrazioak, ongietorriak, udalek deitutako manifestazioa, mendi irteerak, hitzaldiak, urtemugak edota bideo emanaldiak antolatuta dituzte Gipuzkoako hainbat herri-antolatuen. Ikaztegieta, adibidez, bi Olentzero ibiliko dira kalean zehar aurtengoan.

IBARRA ▶

Presoak gogoan izateko helburuz hainbat ekimen abiarazi dituzte

Eguberrietako egunak «berezi gogorak» izaten direla azaldu du Ibarrara Herri Ekimenak

ERREDAKZIOA

Ibarrara Herri Ekimenak hainbat ekimen abiatu ditu «Eguberrietako egunak bereziak direla kontuan hartuta». Ekimenekoek azaldu dutenez, «egun hauetan familia baturik ospatu ohi dira bazkari eta afariak, baina presoekin ezin izango dute familia osaturik ospatu; batetik, presoak espetxean daude familiatik urrun, eta, bestetik, bisitak egiten dizkiegu etxetik hainbat kilometrori; beraz, egoera zaila izaten da familiarentzat», azaldu dute. Hala, «herriarrek ere gogoan izan dituzten eta denak ez gaudela kontuan har dezaten», hainbat ekintza jarri dituzte abian: Gabonetako abestien artean «presoen duintasunaren aldeko» esaldiak tartekatzen dituzte, herriaren sarreran zehar, 09:00etatik aurrera. Besteen artean, prentsaurrekoak, manifestazioak, kontzentrazioak, ongietorriak, udalek deitutako manifestazioa, mendi irteerak, hitzaldiak, urtemugak edota bideo emanaldiak antolatuta dituzte Gipuzkoako hainbat herri-antolatuen. Ikaztegieta, adibidez, bi Olentzero ibiliko dira kalean zehar aurtengoan.

Egitarauari dagokionez, herri-antolatu ateratzeko entseguetan aritu ondoren, gaur izango dute horretarako hitzordua 10:00etan Xepla elkartean gosaria hartu ondoren. Herri-antolatuaren parte hartzea.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larramendi kalean 112 m2. Bista zoragarria.
Salgai (Berrobi). Pisu, baratza eta babola. 168.000€
Salgai (Tolosa). Pisu Laskorain kalean. Guztiz berria.
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala Nagusia kalean eta Belate ibilokian
Salgai (Tolosa). Garaje itxia Plaza Zarran.
Alokatzeko (Arribas). 2 logelako pisua. Tolosalde 17km-tara.
Alokatzeko (Amezketan). 3 logelako pisua, altzari eta garajearekin.
Alokatzeko (Amezketan). 3 logelako pisua, altzariarekin.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

GABONETAN, SALNEURRIAK DOITU DITUGU
PAGOTXA, PERKUSIOKO INSTRUMENTU, ANPLIFIKAGAILU, GITARRA, BAXU ETA OSAGARRITAN
PEARL-SABIAN-VIC FIRTH-AMPEG-ESP-CRATE-SEYMOUR DUNCAN-TUNE-MARRA EZAGUN GUZTIAK
12tik 12ra
NABARMEN EZ GERATZEKO
Easo kolea 81, 20006 Donostia

BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu Donostialdean
LAN-BALDINTZAK :
• Astean sei egun. Asteartetik igandera.
• Bi aste lan, bat jai
• Egunean 4 ordu.
• Goizeko 04:00etatik 08:00etara.
Ezinbestekoa da autoa izatea
Astelehena, abenduaren 26an, deitu telefono honetara
943 30 43 41

iragarki laburrak ▶

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. 943 31 37 82.
Gidariak. Aldundian behar dira.

Behin betiko kontratua. Informa zaituzte: 943 31 37 82.
Urgentea. Haur zaintzaileak behar dira, haur eskoletako hezitzaileak. 943 31 37 82.

Ohar garrantzitsua. Ezintasun fisikoren bat badaukazu, lor ezazu postu finkoa. %5 erreserbatua. Doako informazioa ondoko telefono zenbakian: 943 31 37 82.

Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Udaletarako lanpostuak. Informazioa doan 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Lanpostuak udaletarako. 1.200 euro.

Lanaldia: asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. 943 313782.
Laborategia. Lanpostuak: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzan. 943 31 37 82.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Gabon gaueko afariaren ostean, DJ porrusalda eta burrunaie, 01:00ean, Gaztetxean. 18. urtemuga dela eta.
Tolosa. VIII. San Silbestre Elkartasun Krosa izango da hilaren 31n Alde Zaharrean, 16:00etan hasita, benjamin, alebin, infantil eta helduen mailan. Izen-ematea, Aralar Kirolak dendan edo egun berean 15:00etatik aurrera Berdura plazan.
Tolosa. Alpino Uzturre 2006rako mendiko federatu txartelak tramitatzen hasi da. Izen-ematea astelehen eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etara elkartearen.
Villabona. Jesusen Bihotza ikastolak jaiotza biziduna antolatuta du ikastola eta parrokiaren artean, 17:30etik 19:30era.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkortaren margolanak daude ikusgai Jubilatuen tabernan.
Tolosa. Alejandro Tapiaren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.
Tolosa. Ana Jesus Ansorena tolosarraren keramika lanak Lanbroa tabernan.

MUSIKA

Tolosa. Tolosako Musika Bandak Eguberri kontzertua eskainiko du, Plaza Berrian, 12:30ean.
Villabona. Eresargi abesbataz Gabon kantuen kontzertua eskainiko du, 19:30ean, Bihotz Sakratuaren elizan, aitorpen komunitarioaren ondoren.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Ez dago zerbitzurik. 112.
Tolosa. Morant, R. Zaballarreta, 1.
Telefona: 943 67 38 49.

TXOLARRE IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 102 FM)
11:00. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, oso-osorik. 16:30ean ere errepikatuko dute. Etzi Txolarrek 5 urte beteko ditu, eta saio berezia egingo dute 11:00etatik 14:00etara. Ateak zabalik izango ditu irratia, eta gerturatzaren denarentzat hamaiketako izango da.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.




Txikiiek Urangaren eta Jauregiren sinadurak lortu zituzten. A. COLOMA



Mokaduboa jateko aukera ere izan zuten. A. COLOMA

Urangak Hitza Saria jaso du

FUTBOLA ▶ 'Irutxuloko Hitzak' Ibarraiko aurrelariari eman dio 2004-05 denboraldiko jokalaria onenaren saria



Aitziber lartza Irutxuloko Hitza-ko zuzendariak eman zion saria Gari Uranga futbolari ibartarrari. ASIER COLOMA / IRUTXULOKO HITZA

ASIER COLOMA / IRUTXULOKO HITZA

Gari Uranga aurrelariari jaso du Irutxuloko Hitza-k Realeko jokalaria onenari emandako Hitza Saria. Amara Berriko Ikasbide elkarrean egindako ekitaldian eman zioten saria Ibarraikoari.
Uranga jokalaria gaztea da, Donostiako egunkaria bezala. Iaz egin zuen debuta Ibarraikoak Realeko lehen taldearekin; 30 partida jokatu zituen 2004-05 denboraldian eta bost gol sartu zituen. Hau ez da, ordea, Urangak eta Irutxuloko Hitza-k duten antzekotasun bakarra. Aitziber lartza egunkari-ko zuzendariak nabarmendu zuenez, Irutxuloko Hitza sortu zenean, otsailean, hasi zen Gari Uranga hasierako hamaikakoa jokatzeko. Aurrelariak majo borrokatu behar izan zuen taldean tokia lortzeko: «Hitza bezala», gaineratu zuen Iartzak. Paralelismoekin jarraituz, «gure egunkaria bezala, etorkizun handiko jokalaria dela uste dugu», esan zuen Donostiako

egunkari-ko zuzendariak. Bestalde, orain arte bezala, aurreantzean ere egunkariak Donostiako kirola sustatzen jarraituko duela nabarmendu zuen.

Gari Urangak, bere aldetik, eskerrak eman zizkion Irutxuloko Hitza saria eman izanagatik. Baita egunkariak euskararen alde egindako lanarengatik ere. «Kirolak eta euskaratik uztartuta joan behar dutela uste dut», adierazi zuen Urangak.

Ibarraiko jokalaria ondo baino hobeto lagunduta joan zen Ikasbide elkartera, Igor Jauregi izan baitzuen uneoro aldamean. Eta saria eman ondoren, merienda egin zuten biak; baita Ikasbidera joandako gainerakoek ere. Txikien hain idoloen sinadura lortzeko aukera izan zuten orduan; bartzuek paperean, eta besteek soinean zeramaten Realeko kamisetan.

Meriendaren uean, galderen txanda iritsi zen. Bai Urangak, bai Jauregik txintxo-txintxo erantzun zituzten jendearen galderak. Eta, nola ez, zaletzek Realari azken partiduetan gertatutakoaz galdetu zieten. Biek ez zuten jakin azaltzen nolatan galdu dituzten azken asteetan hainbeste puntu. Dena dela, aurreantzean halakorik berriro gerta ez dadin ahalegin bete egingo dutela esan zuten. Asteazkenean, Cadizen kontra, azken partidetak emaitza txarrei buelta emateko aukera aparta izan zuten. Baita aprobetxatu ere. 3 puntuak poltsikoan. Gabonetako oporretara lasai joan daitezke.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Amaia Olariaga Lasa.
Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Beñat Zapirain.
Gaur 2 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Maialen Nuñez Sagastibeltza.
Etzi 4 urte potolo, printzesa. Zorionak Xabier, aitaboa eta amaborearen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheka TOLOSA Udaletxeko bulegoa LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!